



## HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA (OBBE).

### 2014. URTEA

[Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren](#) arabera, administrazio publikoek finantza-iraunkortasuneko printzipioa bete behar dute, eta zor komertziala iraunkor edo sostengagarria izango da, baldin eta hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea ez bada berankortasunari buruzko arauak agintzen duena baino handiagoa.

Nafarroako Arartekoaren erakundearen, Hornitzaileei Ordaintzeko Batez Besteko Epea kalkulatzeko, [Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuan](#) araututakoa hartzen da oinarritzat, hor zehazten baita zein den administrazio publikoetan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatzeko metodologia.

Adierazle hauek argitaratu behar dira:

- **Hornitzaileei Ordaintzeko Batez Besteko Epea (OBBE):** ordaindutako eragiketen ratioaren eta ordaintzeke dauden eragiketen ratioaren batez besteko haztatua da.
- **Ordaindutako eragiketen ratioa:** Nafarroako Arartekoak ordainketak egiteko batez beste zenbat egun behar dituen adierazten du. Faktura bakoitza ordaintzeko behar izan diren egunak eta ordaindutako fakturen zenbatekoak haztatuz kalkulatzeko da.

Fakturak ordaintzeko behar izandako egunak kalkulatzeko, kontuan hartzen da zenbat egun igaro diren erakundearen faktura jaso zenetik faktura ordaindu zen egunera arte, eta zifra horri 30 kentzen zaio, hori baita fakturak ordaintzeko berankortasunari buruzko araudian ezarritako gehieneko egun kopurua.

- **Ordaintzeko dauden eragiketen ratioa:** datuak kalkulatzeko diren egunean ordaintzeke dauden fakturek erakundearen batez beste zenbat egun daramaten adierazten du, haztatuta. Fakturak erakundearen daramaten egun kopurua kalkulatzeko, kontuan hartzen da zenbat egun igaro diren faktura jaso zen egunetik hasi eta kalkulatuak datuei dagokien epealdiko azken egunera arte, eta zifra horri 30 kentzen zaio.

Garrantzitsua da adieraztea hiru adierazle horietako edozeinek izan dezakeela balio negatiboa, hori gertatzen baita Nafarroako Arartekoaren Erakundeak faktura jaso eta 30 egun natural igaro baino lehen ordaintzen duenean.

635/2014 Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarraren arabera, argitaratu beharreko lehen datuak 2014ko irailari dagozkionak dira. Ondorioz, 2014ko irailetik abendura arteko hilabeteetako informazioa zehazten da jarraian:



2014ko IRAILA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	27	7,78	-16,13	1	3,35	-28,00	-19,70
Kapital-eragiketak	-	-	-	3	1,36	-27,98	-27,98
<b>GUZTIRA</b>	<b>27</b>	<b>7,78</b>	<b>-16,13</b>	<b>4</b>	<b>4,71</b>	<b>-27,99</b>	<b>-20,60</b>

2014ko URRIA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	46	14,66	-16,29	5	4,46	-0,12	-12,52
Kapital-eragiketak	1	0,03	2,00	2	1,33	3,00	2,98
<b>GUZTIRA</b>	<b>47</b>	<b>14,69</b>	<b>-16,25</b>	<b>7</b>	<b>5,79</b>	<b>0,59</b>	<b>-11,49</b>

2014ko AZAROA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	26	8,43	-16,60	5	4,54	17,97	-4,51
Kapital-eragiketak	-	-	-	2	1,33	33,00	33,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>26</b>	<b>8,43</b>	<b>-16,60</b>	<b>7</b>	<b>5,86</b>	<b>21,37</b>	<b>-1,02</b>

2014ko ABENDUA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	24	14,42	-1,44	1	0,89	-1,00	-1,41
Kapital-eragiketak	4	3,07	13,02	-	-	-	13,02
<b>GUZTIRA</b>	<b>28</b>	<b>17,49</b>	<b>1,10</b>	<b>1</b>	<b>0,89</b>	<b>-1,00</b>	<b>1,00</b>

2014ko ekitaldian irailetik abendura bitartean ordaindutako eragiketa guztiak hartuta, 2014ko hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea atera dugu, eta -10,02 egun izan da. Horrek adierazten du **Nafarroako Arartekoaren erakundeak, 2014ko ekitaldian, batez beste 19,98 egunera ordaindu dituela fakturak.**

2014. Urtean	Ordaindutako eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	123	45,29	-11,59	-11,59
Kapital-eragiketak	5	3,10	12,91	12,91
<b>GUZTIRA</b>	<b>128</b>	<b>48,39</b>	<b>-10,02</b>	<b>-10,02</b>

Nafarroako Arartekoaren erakundearen erregistratutako hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeen hileroko datuekin, 2014ko epean, osatutako seriea erakusten du grafiko honek, bai eta hura osatzen duten ratioak ere:

**Hornitzaileei OBBE 2014. Urtean**

